DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Gizarte Ekintza
Acción Social
Urdaneta, 13 | Tel. 943481400 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

# GIZARTE EKINTZAKO KONTSEILU SEKTORIALA
# CONSEJO SECTORIAL DE ACCION SOCIAL

## BILERA-AGIRIA / ACTA

| | |
|---|---|
| **EGUNA / DIA:** | 2018ko abenduak 14 |
| **ORDUA / HORA:** | 10:00 |
| **LEKUA / LUGAR:** | Donostiako Udaleko Pleno Aretoan- Salón de plenos del Ayuntamiento de Donostia |
| **BATZAR MOTA / SESION:** | Ohikoa-Ordinaria |

## BERTARATUTAKOAK / PRESENTES

ARRATS
ASADE ELKARTEA
CAMELAMOS ADIQUERAR ELKARTEA
GIPUZKOAKO PERTSONA GORREN FAMILIEN ELKARTEA (ARANSGI)
GIPUZKOAKO EPILEPSIA ELKARTEA
AVAIM
DONOSTIAKO CARITAS
GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OF. / COLEGIO DE. TRABAJO SOCIAL G.
GURUTZE GORRIA
ELKARTU
GAZTEDI ESKU-HARTZE SOZIALAREN ELKARTEA
GENE
GUREAK INKLUSIO FUNDAZIOA
HELDUEN HITZA
IRESGI
NAGUSILAN - HELDUEN GIZARTE BOLUNTARIOTZA
EH BILDU
IRABAZI DONOSTIA
PSE-EE
LEHENDAKARITZA
IDAZKARIA
GIZARTE EKINTZAREN ZUZENDARITZA / DIRECCION DE BIENESTAR SOCIAL

## ESAN-EGINAK / DESARROLLO DE LA REUNIÓN

| | |
|---|---|
| **1.- Aurreko bilerako aktaren irakurketa eta, behar izanez gero, zuzenketa**<br><br>Bertaratutakoen atalean, euskarazko bertsioko “Sindikala” terminoa baliogabetu eta “ASADE Elkartea” izatera igarotzeko zuzenketa onartu da.<br><br>**2.- Kontseiluko Idazkaritza berriaren izendapenaren berri ematea**<br><br>Lehengo idazkari Mikel Esnalen lanpostuaren aldaketa dela eta, honi bere zerbitzuengatik eskerrak emanez, Nerea Ibarrola aurkezten da Gizarte Ekintzako kontseilu sektorialeko idazkari berri bezala. | **1.- Lectura y rectificación del acta de la reunión anterior y su aprobación, si procede**<br><br>Es aprobada con la rectificación de anular, en el apartado referido a los “Presentes” el término “Sindikala” de la versión en euskera dejando sólo “Asociación ASADE” en la parte de los presentes.<br><br>**2.- Dar cuenta del nombramiento de la nueva Secretaria del Consejo.**<br><br>Es presentada Nerea Ibarrola como nueva secretaria del consejo sectorial de Acción Social, tras el nuevo cambio de puesto del anterior secretario Mikel Esnal, al cual la |

| | |
|---|---|
| | presidenta agradece sus servicios. |
| **3.- 2018ko diru-laguntzak: aplikazio berria ezarri izanagatik atzerapenak egon dira tramiteak egiterakoan.** | **3.- Subvenciones 2018: tardanza en su tramitación por la implantación de la nueva aplicación.** |
| Diru-laguntzen gaiaren arduraduna oporretan dagoenez, Nerea Ibarrolak adieraziko du honek azaldutakoa: | Al estar de vacaciones la responsable del tema de las subvenciones, pasa a informar Nerea Ibarrola lo transmitido por ella indicando: |
| 39/2015 Legearen arabera, pertsona juridikoen eta Administrazioaren arteko harremana bitarteko elektronikoen bidez gauzatu behar da. Baldintza honek diru-laguntzei ere eragiten die, beraz, hauen barne-izapidea eta elkarteen diru-laguntza eskaerak, horretarako sortutako programa informatikoaren bidez egin behar izan dira, prozesua honela hasiz: | Según la Ley 39/2015, la relación entre las personas jurídicas y la Administración debe realizarse a través de medios electrónicos. Esta exigencia también afecta a las subvenciones, por lo que tanto la tramitación interna de éstas como las solicitudes de subvención de las asociaciones ha tenido que realizarse a través del programa informático creado para ello, iniciando el proceso de la forma siguiente: |
| - 18.02.20an Tokiko Gobernu-batzarrari oinarriak eraman zitzaizkion, onar zitzan.<br>- 18.02.27an oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu ziren.<br>- Eskaerak aurkezteko epea hilabete 1ekoa izan da, oinarriak argitaratu ziren egunaren hurrengo egunetik zenbatuta: 18.02.28tik 18.03.28ra.<br>- Elkarteek programa informatikoak erabiltzerakoan arazoak izan zituztenez, eskaerak aurkezteko epea 18.04.20ra arte luzatu zen.<br>- Uztaila erdialdean, instrukzio-organoak 57 elkartek beren eskaerak oker aurkeztu zituztela egiaztatu zuen. Hau zuzentzeko epea 2018ko irailaren 3tik 14ra artekoa izan zen.<br>Eskaerak aurkeztu ziren epetik zuzenketak egin arte izandako atzerapena aplikazio berriaren garapenean egon ziren arazoei dagokie. Gainera, abuztuan elkarte gehienak itxita egoten dira eta ez zen komenigarria hilabete horretan egitea.<br>- Sailean kontzesio-proposamena egin zen eta 18/10/23ko Gobernu-batzarrera eraman zen.<br>- Kexak aurkezteko epe bat eman zen, 18/11/09tik 18/11/29ra, baina ez zen kexarik egon. | - A la junta de Gobierno Local se llevan las bases para su aprobación el 20.02.18.<br>- Las bases de publicaron en el BOG el 27.02.18<br>- El plazo para presentar las solicitudes ha sido de 1 mes contado desde el día siguiente a la publicación de las bases: del 28.02.18 hasta el 28.03.18.<br>- Como existieron problemas a la hora de la utilización del programa informático por parte de las asociaciones, se amplió el plazo de presentación de solicitudes hasta el 20.04.18.<br>- A mediados de julio, el órgano instructor comprobó que 57 asociaciones habían presentado de manera incorrecta sus respectivas solicitudes. El plazo de subsanación fue del 3 al 14 de septiembre de 2018.<br>Este retraso desde la fecha de presentación de solicitudes a la subsanación fue debido a problemas en el desarrollo de la nueva aplicación, añadido a que en el mes de agosto la mayoría de las asociaciones cierran y no era conveniente hacerlo en ese mes.<br>- En el Departamento se hizo la propuesta de concesión y se llevo a la Junta de Gobierno del 23/10/18.<br>- Se concedió un plazo de reclamaciones del 09/11/18 al 29/11/18, no existiendo ninguna reclamación. |
| Gai honen inguruan erantzuteko epe bat irekitzen da. | Se abre un plazo de replicas sobre este tema. |
| Hurrengo urtean kontuan izateko helburuarekin, bidali gabe gorde daitekeela esan da, honekin lan egiten jarraitzeko. | Apuntan se tome en cuenta para el año que viene en el aplicativo el poder guardar el sin enviar, para poder seguir trabajando en el mismo. |
| • Gaztediko ordezkaria | • Representante de Gaztedi |
| Instrukzio-organoarengatik jasotako arreta goretsi ondoren, aurten iaz besteko kantitatea eman zaiola ulergaitza egiten zaiola adierazi du, proiektua handitu egin baita eta, gainera, elkarteak berdintasun-plana eta euskara-plana landu baititu. | Tras alabar las atenciones recibidas por el órgano instructor, indica no entender como este año se le ha concedido la misma cantidad que el anterior, cuando el proyecto se ha ampliado y además la asociación ha elaborado un plan de igualdad y un plan de euskera. |
| Une horretan ezin denez erantzun eta bereziki bere elkarteari eragiten dion gaia denez, era independentean erantzungo zaio. | Al no poder contestarle en ese momento y ser un tema particular de su asociación, se le contestará independientemente. |

| | |
|---|---|
| **4.- 2019ko Udal Aurrekontuaren aurkezpena eta eztabaida** | **4.- Presentación y discusión del Presupuesto Municipal de 2019** |
| Aitziber San Romanek bidalitako aurrekontuaren oharrak azaltzeari ekin dio, konparaziozko taulak nabarmenduz eta partidak areagotu edo murriztearen arrazoiak azalduz. | Aitziber San Roman pasa a explicar las anotaciones enviadas del presupuesto, destacando los cuadros comparativos y explicando el por qué de las partidas aumentadas y las disminuidas. |
| **PARTE HARTZEAK** | **INTERVENCIONES** |
| **<u>Caritaseko ordezkaria</u>** | **<u>Representante de Cáritas</u>** |
| Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) murrizketa, IV. kapitulua. | Reducción de AES, capitulo IV. |
| Partida honek murrizketa bat izatea arraroa iruditzen zaiola adierazi du eta, honen arrazoia eskaerarik ez egotea edo gutxiago ematea den galdetu du. Zein da murrizketa honen arrazoia? | Señala parecerle raro que esta partida tenga una reducción y pregunta si es debido a que no hay solicitudes o si se da menos cantidad. Cuál es el motivo de esta reducción. |
| Aitziber San Romanek, galdera erantzunez, 2017 eta 2018an laguntza ekonomikoen eskatzaileetan jaitsierarako joaera ikusi dela Hala ere, 2019ko aurrekontuan GLL-etarako esleitutakoa estimazio bat dela iradoki du, hau da, guztia gastatuko balitz eta areagotzeko beharra egongo balitz, ez litzateke eragozpenik egongo eta egoki den aldaketa egingo litzateke aurrekontuan. | Aitziber San Roman, en respuesta a la pregunta indica que en 2017 y 2018 han descendido los solicitantes de prestaciones económicas. No obstante, apunta que lo consignado en el presupuesto 2019 para AES es una estimación, con lo que si se gastara el total y se viera la necesidad de aumentar, no habría inconveniente y se tramitaría la oportuna modificación presupuestaria a tal efecto. |
| **<u>Gizarte Langintzaren Elkarte Ofizialeko ordezkaria</u>** | **<u>Representante de Colegio Oficial de Trabajo Social</u>** |
| GLLekin jarraituz, murrizketa honek harritu egiten duela iradoki du. Azken bi urteetan laguntza hauek lortzeko baldintzak eta irizpideak gogortu egin diren planteatzen du eta, baita gizarte-larrialdietako egoerak gogortzen ari direla ere; berak uste du hori izan daitekeela arrazoietako bat. | Siguiendo con las AES, apunta que le sorprende esta reducción. Plantea si es debido al endurecimiento en los dos últimos años de los requisitos y criterios para acceder a estar ayudas, ya que se está viendo que hay más necesidades y que las situaciones de emergencia social se están endureciendo, por lo que ella cree que ese puede ser uno de los motivos. |
| Aitziberrek dio, zerbitzuak ezagutzen ez dituen kasuak badaude, elkarteetatik gizarte zerbitzuetako zentroetara bideratzeko. | Aitziber pide que desde las asociaciones, si hay casos que el servicio desconoce, se les orienten hacia los centros de servicios sociales. |
| **<u>Arratseko ordezkaria</u>** | **<u>Representante de Arrats</u>** |
| Datu honek harritu egiten duela, baina informazioa falta zaiola azaldu du. Esan du, badakiela beste udaletxe batzuentzat, hauek duten kopurua ez dela nahikoa. | Puntualiza que le sorprende este dato pero que le falta información. Apunta que sabe que a otros ayuntamientos no les llega con las cantidades que tienen. |
| Diru-laguntzei dagokienez, 2019rako esleitutakoa 2018ko kopuru bera izatearekiko desadostasuna azaltzen du, izan ere, bere ustez, hau jaitsiera bat da, KPIk eta guztiak gora egiten baitu, baina diru-laguntzek ez. Bestalde, 2019an ez bada diru-laguntza zuzenik eman behar, elkarte horiek aldi berean ariko diren galdetzen du, hala izanez gero, diru-laguntzen zenbatekoa ere murriztu egingo baita, banatu | En cuanto a las subvenciones, plantea su disconformidad a que la cantidad consignada para el 2019 sea igual que en 2018, ya que a su parecer, esto en realidad es una bajada, ya que el IPC sube, todo sube, y las subvenciones no. Por otra parte, si en 2019 no se van a dar subvenciones directas, pregunta si esas asociaciones van a concurrencia, porque de ser así, el importe de las subvenciones también disminuye al haber más |

| | |
|---|---|
| beharreko elkarte gehiago egongo dira eta. | asociaciones entre las que repartir. |
| Zerbitzuen zerrenda beteta dagoen galdetu du, azalduz, bere ustez, diru-laguntzak dituzten, baina zuzenean Udaletxeak eskaini beharko lituzkeen elkarteak daudela. | Continúa consultando si la cartera de servicios está completa, señalando que en su opinión hay servicios que se están subvencionando pero que en realidad deberían prestarse directamente por el Ayuntamiento. |
| Diru-laguntzen gaiarekin lotuta, Aitziberrek azaldu du, esan bezala, 2019rako kopurua 2018an izan denaren berdina dela. | En relación al tema de subvenciones, Aitziber aclara que, efectivamente, la cantidad para 2019 es la misma que ha habido en 2018. |
| Zerbitzuen zerrendari, eta bereziki, larrialdiko etxebizitzei dagokienez, gaur egun Etxegintzak lagatako etxebizitzak ditugula, baina horretarako baldintza batzuk ezarri behar izan ditugula azaldu du (ez da etxebizitza bat baino gehiago onartzen atalondo bakoitzean, bizilagunak ez kargatzeko, hiriko gune ezberdinetan kokatzea komeni da, etab.). Baztertze-egoeran dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzei dagokienez, Aitziberrek, gaur egun plazarik ez dagoela, baina Gizarte Ekintzako Zuzendaritzako zerbitzu teknikoak etxebizitza hauen kudeaketarako lizitatuko den kontratu berrian lanean ari direla esan du. Etorkizuneko kontratu honekin gizarte hezitzaileak kontratatuko dira, zeintzuk etxebizitza hauetan dauden pertsonen jarraipena eta sostengua egiteaz arduratuko diren. | Respecto a la cartera de servicios, y en concreto, a los pisos de emergencia, aclara que actualmente tenemos pisos cedidos por Etxegintza pero que hemos tenido que establecer una serie de condicionantes (no se admite más de un piso en el mismo portal para no cargar a los vecinos, conviene que estén situados en diferentes zonas de la ciudad, etc.). En cuanto a los pisos tutelados para personas en exclusión, Aitziber señala que a día de hoy no hay plazas pero que los servicios técnicos de la Dirección de Acción Social están trabajando en el nuevo contrato que se va a licitar próximamente para la gestión de estos pisos. Con este futuro contrato se contratará a educadores/as sociales que se encargarán de hacer el seguimiento y apoyo a las personas que se encuentren en estas viviendas. |
| Honek arrisku bat duela gehitu du Aitziberrek, izan ere, dekretua atera aurretik hasiko denez, gero dekretuarekin bat ez etortzeko arriskua dagoela. | Aitziber añade que el riesgo que esto tiene es que como se inicia antes de que salga el decreto, se corre el riesgo que éstos no se ajusten al mismo. |
| **<u>Gaztediko ordezkaria</u>** | **<u>Representante de Gaztedi</u>** |
| Ebidentzian oinarritutako programak aurrera eramateak psikologo komunitarioei eragingo ote dien galdetu du. Erantzuna ezezkoa izan da; ebidentzian oinarritutako programek gizarte hezitzaileek eta terapeutek lan egiteko modua aldatuko dutela azaldu du, eta ez hainbeste psikologo komunitarioena | Consulta si a los psicólogos/as comunitarios/as les puede afectar la puesta en marcha de los programas basados en la evidencia. Se responde que no, aclarando que los programas basados en la evidencian suponen un cambio en la forma de trabajo de los/as educadores/as y terapeutas, no tanto en la de las/os psicólogas comunitarias/os. |
| Bestalde, aurrekontuetan azpiegitura baliabideen planifikazioa ez dela agertzen uste du, lokal askoren falta baitago. Pertsona helduenak ez diren elkarteek, azpiegiturei dagokienez, babesa faltan botatzen duela gehitu du. | Por otro lado, cree que no aparece en los presupuestos la planificación de recursos de infraestructura, ya que hay mucha falta de locales. Añade que echa en falta apoyo en relación a la infraestructura de las asociaciones que no son de personas mayores. |
| Elkarteentzat lokalak falta direla argi dagoela erantzun du Aitziberrek, eta Kontseilu batean landu daitekeen arazo bat dela. Lokalak baino elkarte gehiago dago. Elkarte batzuek lokala partekatzen dutela gehitu du. | Aitziber responde que está claro que faltan locales para las asociaciones y que es un problema que se puede tratar en algún Consejo. Hay más asociaciones que locales. Añade que algunas asociaciones comparten local. |
| Gaztedik, diru-laguntzak azpiegitura egotearekin baldintzatuta daudela azaldu du. Gainera, elkarte batzuek lokala partekatzea nahi dutela, baina beste batzuek ezetz diotela esan du; bere elkartea, denboraldi batean, Caritasekin lokala partekatzen egon zela eta, azkenean uko egin ziotela, ezinezkoa | Gaztedi apunta que las subvenciones están condicionadas a la existencia de infraestructura. Señala además que algunas asociaciones quieren compartir y otras se niegan y que su asociación estuvo durante un tiempo compartiendo local con Caritas y al final hicieron una renuncia, ya que les resultaba imposible. |

| | |
|---|---|
| gertatzen zitzaien eta. | |
| Hori guztia dela eta, Udaletxetik plangintza bat egitea eta gaia airean ahaztuta ez uztea eskatzen dute. | Por todo ello, solicitan que se haga una planificación desde el Ayuntamiento y que el tema no se quede en el aire olvidado. |
| Datorren bilera batean lokalen gaia sartzearen ideia jaso da. | Se recoge la idea de integrar  el tema de locales en una próxima reunión. |
| **5.- 2019ko Udal Aurrekontuen saioen egutegia.** | **5.- Calendario de sesiones del Presupuesto Municipal del 2019.** |
| Batzorde Iraunkorreko ordezkariek 2019rako 4 bilera proposatu dituzte, hilabete hauetan: otsaila, apirila, iraila eta abendua. Oraingoz, otsaileko eta apirileko bileretan landu beharreko gaiak bakarrik zehaztu dira: | Los representantes de la  Comisión Permanente han propuesto 4 reuniones para 2019 en los siguientes meses: febrero, abril, septiembre y diciembre. Por el momento, únicamente se han concretado los temas a tratar en las reuniones de febrero y abril: |
| .Otsailean, 2018ko aurrekontuaren kitapena landuko da, memoria ez egon arren, etxe-gabekoen gaia eta etxebizitza-planaren egoera. | .En febrero, que se tratará la liquidación del presupuesto del año 2018, aunque no esté la memoria, el tema de las personas sin hogar y la situación en la que se encuentra el plan de vivienda. |
| .Apirilean, memoriaren aurkezpena, bakardadearen gaia eta legegintzaldi honen 4 urteetan zehar egin den ibilbidea, izan ere, uztailean gobernu-ekipo berriaren izendapena egingo da. | .En Abril, la presentación de la memoria, el tema de la soledad y el recorrido de lo que se ha realizado en estros 4 años de legislatura, ya que en julio se realizará el nombramiento del nuevo equipo de gobierno. |
| Kontseiluko kideek ez dute aurkako ezer esan, beraz, 2019ko saioen egutegia onartzen da. | Los miembros del Consejo no han objetado nada al respecto, por lo que se aprueba el calendario de sesiones para el 2019. |
| **6.- Herritarren Parte-hartzearen sailak egindako Kontseilu Sektorialen ebaluazioaren aurkezpena** | **6.- Presentación de la evaluación de los Consejos Sectoriales realizada por el departamento de Participación Ciudadana.** |
| Herritarren Parte-hartzeko Iñaki Otamendik egin du aurkezpena, aurretik kontseiluko kide guztiei bidali zaien dokumentua oinarri hartuta. | Hace la presentación Iñaki Otamendi de Participación Ciudadana, en base al documento que ha sido enviado con anterioridad a todos los miembros del consejo. |
| Herritarren Parte-hartzearen sailak Kontseilu ezberdinen funtzionamenduaren ebaluazio bat burutu du. Ebaluazio hau bi urtetik behin egiten da, baina lehenago ere egin daiteke, kontseiluko kideren batek hala eskatuz gero. | El departamento de Participación Ciudadana ha realizado una evaluación del funcionamiento de los diferentes Consejos. Esta evaluación se realiza cada dos años o puede ser antes si lo pidiera cualquier miembro del consejo. |
| Ebaluazio hau, hobekuntzak proposatzeko, helburuak parekatzeko eta dinamizatzeko eta, euskararen erabilera eta genero ikuspegia sustatzeko egiten da. | Esta evaluación se realiza para proponer mejoras, igualar los objetivos, dinamizarlos, fomentar la utilización del euskera y la perspectiva de género. |
| Dokumentu hau, kontseiluko hainbat kideri eta idazkariari egindako elkarrizketetan oinarrituta eta aurkeztutako aktak aztertuta sortu da. Iritzi guztiak irudikatzen ahalegindu da. | Informa que  este documento se ha elaborado en base a las entrevistas que se han realizado a los diferentes miembros del consejo y analizando las actas presentadas, así como la entrevista con el secretario. Se ha intentado plasmar todas las opiniones. |
| Iñaki Otamendik aurkezpenari ekin dio. | Iñaki Otamendi pasa a explicar la presentación. |

| PARTE HARTZEAK | INTERVENCIONES |
|---|---|
| **<u>HELDUEN HITZA-ko ordezkaria</u>** | **<u>Representante de HELDUEN HITZA</u>** |
| Ezagutzen ez diren gai asko daudela dio, eta hori dela eta, oso interesgarria eta aberasgarria dela elkarteen artean informazioa partekatzea. Informazioa partekatzeko eta konponbideak bilatzeko, beste elkarteekin elkartzea oso garrantzitsua dela azaldu du. Gai batzuetan oso aktiboki parte ez hartzearen arrazoia, batzuetan, gaien inguruko ezjakintasuna dela esan du. | Comenta que hay muchos temas que no se conocen y que por ello es muy interesante y enriquecedor compartir información entre las asociaciones. Añade que es muy importante reunirse con otras asociaciones para compartir información y buscar soluciones. Señala además que a veces el desconocimiento es la razón por la que no participan muy activamente en según qué temas. |
| Aitziberrek Batzorde Iraunkorra biltzea proposatu du, kontseiluaren metodologiaren hobekuntza-proposamenak aztertzeko eta hau erabakitzeko. Nagusilaneko ordezkaria Aitziberrekin bat dator. | Aitziber propone que la Comisión Permanente se reúna para analizar propuestas de mejora de la metodología del consejo y que luego éste decida. El representante de Nagusilan coincide con Aitziber. |
| Gaztediko ordezkariak sailera ideia-jasa bat bidaltzea proposatu du, gero Batzorde Iraunkorrak aztertu ditzan. | El representante de Gaztedi propone que se envíe una lluvia de ideas al departamento y que luego la Comisión Permanente estudie éstas. |
| Proposamen hauek emango den e-mailera bidaliko direla, eta bidaltzeko 15 eguneko epea egongo dela hitzartu da. Ondoren Batzordeari bidaliko zaizkio, honek hurrengo bileraren aurretik aztertu ditzan. | Se acuerda que se envíen estas propuestas al email que se facilitará y que habrá un plazo de 15 días para enviarlas. Se enviarán posteriormente a la Comisión para que ésta las pueda analizar antes de su próxima reunión. |
| **7.- Beste gai batzuei buruzko informazioa: etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren araudi arautzailea eta ate irekien programa:** | **7.- Información sobre otros temas: el nuevo reglamento regulador del servicio de ayuda domiciliaria y el programa de puertas abiertas:** |
| **Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren araudi arautzaile berria:** | **Nuevo reglamento regulador del servicio de ayuda domiciliaria:** |
| Tere Barrenetxeak Etxez etxeko Laguntzaren Araudi berriarekin zein puntutan gauden azaldu dio Kontseiluari. | Tere Barrenetxea explica al Consejo en qué punto nos encontramos con el nuevo Reglamento de Ayuda Domiciliaria. |
| Ekainean egin zen Kontseiluaren bileran, Kontseiluko kide askok, araudi berrian erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak desorekatuta zeudela esan zuten: eskubideak baino askoz betebehar gehiago zegoen. Iritzi hauek kontuan hartuta, araudiko 12. artikulua berriz idatzi da, eskubide batzuk gehituz. Halaber, eta bilera hartan elkarte batzuek egindako proposamenak jarraituz, hasierako idatzian esplizituki agertzen ez zen erabiltzaileentzako eskubide bat gehitu da: errespetuz tratatua izateko eskubidea. | En la reunión del Consejo que se hizo en junio, se comentó por parte de muchos miembros del Consejo que en el nuevo reglamento los derechos y las obligaciones de los usuarios estaban descompensados: había muchas más obligaciones que derechos. Teniendo en cuenta estas opiniones, se ha dado una nueva redacción al art. 12 del texto del reglamento añadiendo más derechos. Asimismo, y siguiendo las propuestas que algunas asociaciones hicieron en aquella reunión, se ha añadido un derecho que en la redacción inicial no se contemplaba explícitamente: el derecho del usuario a ser tratado con respeto. |
| Era berean, 7. artikulua berriz idatzi da, zerbitzutik erabiltzailearen familiakoei edo laguntzaileei bakarrik on egiten dien prestazioak kenduko direla zehaztuz.<br>Aldaketa hauek jasan dituen araudia Tokiko Gobernu-batzarrak onartu zuen eta, gaur egun, alderdi politiko batzuek testurako zuzenketa batzuk aurkeztu dituzte. | Igualmente, se ha dado una nueva redacción al art. 7 especificando que se excluyen del servicio aquellas prestaciones de las que se beneficien *exclusivamente* los familiares o acompañantes de los usuarios del servicio.<br>El reglamento con estas modificaciones fue aprobado por la Junta de Gobierno Local y en la actualidad algunos partidos políticos han presentado diferentes enmiendas al |

| | |
|---|---|
| | texto. |
| Urtarrilaren 7ko Udaleko Osoko Bilkuran herritarrei zuzendutako jardunaldi ireki bat ospatuko da, testua aurkezteko. Ordua, oraindik, ez dago argi, baina jakinaraziko da. | El 7 de enero en el Pleno del Ayuntamiento se va a celebrar la jornada abierta a la ciudadanía para presentar el texto. Aún no se conoce la hora pero se comunicará. |
| **Ate irekiak Zerbitzua (gau hotzetarako)** | **Servicio (invernal) de Puertas abiertas** |
| Aitziber San Romanek azaldu du aurten pertsona gehiago hurbiltzea posible denez, lokal handiago baten beharra aurreikusi dela. Lokal egokia aurkitzea oso zaila dela azaldu du. Azkenean Eason dagoen Donostia 2016-ren lokala izango dela erabaki da, baina komunak jarri behar dira eta segurtasunaz arduratuko den pertsona bat kontratatu behar da. Gau berean lokal bat baino gehiago izatea baztertu da. | Aitziber San Roman señala que este año ante la posibilidad de que haya mayor afluencia a este servicio, se ha pensado en la necesidad de habilitar algun otro espacio más amplio. Señala que es muy difícil encontrar locales que cumplan los requisitos necesarios. Finalmente se ha decido que sea el local de Donostia 2016 que está en Easo pero hay que poner baños y contratar a una persona que se encargue de la seguridad. Se ha descartado que haya más de un local para dar el servicio en una misma noche |
| Jarduera-plana zein izango den azaldu da: | Se explica cuál será el plan de actuación: |
| A plana: Abegi Etxea<br>B plana: nahikoa ez bada, Abegi Etxeko biltegia irekiko da.<br>C plana: 60 pertsona baino gehiago badaude, Easoko lokala irekiko da. Lokal honetan ez dugu plazez hitz egingo. | Plan A: Abegi Etxea<br>Plan B: en caso de que no sea suficiente, se abrirá el almacén de Abegi Etxea.<br>Plan C: en caso de que haya más de 60 personas, se abrirá el local de Easo. En este local no hablamos de plazas. |
| Ikusiko dugu nolako eboluzioa duen zerbitzuak negu honetan, kostaldean izotza egiten duen egunak jarraituak badira, baliabide hauetan pertsona gehiago egongo dira, egun bereiziak badira, gutxiago. | Habrá que ver cómo evoluciona el servicio durante este invierno, si los días en los que hiele en la costa son días seguidos habrá más personas en estos recursos, si son días salteados, menos. |
| Bilduko ordezkariak, gauetan jendea egoten dela jakina den lekuetara joateko aparteko esfortzu bat egingo den, eta zirkulazioan dauden etorkinen arretarako lokalarekin zer egin behar den galdetu du. | La representante de Bildu pregunta si se va a hacer un esfuerzo extra en ir a los sitios en los que se sabe que hay gente a las noches y qué se va a hacer con el local de atención a inmigrantes en tránsito. |
| Tere Barrenetxeak, Ate Irekien helburua kalean dauden pertsonak hotzez hiltzea saihestea dela erantzun du. Horretarako, elkarteetara eta SOS deietara mezu bat bidaliko da eta, udaltzaina, egiten dituen errondetan, abisatzen joango da. | Tere Barrenetxea contesta que el objetivo del programa de Puertas Abiertas es evitar que las personas que están en la calle mueran de frío. Para ello se enviará un mensaje a las asociaciones y a SOS deiak, y la guardia municipal en sus rondas irán avisando. |
| Caritaseko ordezkariak zein planetan gauden nola jakingo dugun galdetu du: A, B edo C. | El representante de Cáritas pregunta cómo vamos a saber en qué plan estamos: si A, B o C. |
| Aitziberrek A plana nahikoa ez denean, B planera pasako garela azaldu du eta, 60 pertsona gainditzen baditugu, C planera igaroko garela. Orokorrean, B planera igarotzen bagara, pertsona kopurua ez da murriztuko, beraz, B planean geldituko ginateke edo C plana aktibatuko genuke. Edonola ere, Tere Barrenetxeak esan duen bezala, agente ezberdinei jakinaraziko zaie. | Aitziber aclara que cuando no sea suficiente el Plan A, pasaremos al B, y si nos pasamos de 60 personas, al C y que generalmente, si pasamos al Plan B, el número de personas no va a disminuir, con lo que nos mantendríamos en el plan B o activaríamos el C. De todas formas, tal y como ha dicho Tere Barrenetxea, se informará a los diferentes agentes. |
| Bere aldetik, IRABAZI-ko ordezkariak, kostaldea | Por su parte, la representante de IRABAZI considera que helar en la costa es un concepto demasiado escaso y que |

| | |
|---|---|
| izoztearen kontzeptua eskasa dela uste du eta beste meteorologia egoera batzuk ere kontuan hartu behar direla, esaterako, egun batean 17 gradutan eta hurrengoan 4 gradutan egotea, tenperatura aldaketa handi horiek ere pertsonen osasunean eragiten baitute. Bere ustez gai honen inguruan hausnartu behar dela azaldu du.<br><br>Aitziber San Romanek hausnarketa hori egina dagoela, eta "kostaldean izotza" irizpidea ezartzea erabaki dela azaldu du, aproposena eta finena dela uste baita. Euskalmet eta AEMETen abisuak alderatu ziren. Kostaldean izotza egoteak tenperaturak oso baxuak direla esan nahi du, beraz, gehien interesatzen zaigun irizpidea hau dela ondorioztatu da.<br><br>IRABAZIko ordezkariak bere iritziz kontuan izan beharko liratekeen beste egoera batzuk daudela errepikatu du, irizpide honen arabera kanpoan geratuko liratekeenak (adibidez, 5 gradutik 0 gradurako tartea).<br><br>**8.- Eskariak eta galderak**<br><br>Zeuden zalantzak azaltzen joan garenez eta gehiago ez dagoenez, bilera 12:30tan amaitzen da. | deben tenerse en cuenta también otras situaciones meteorológicas, como por ejemplo, que un día estemos a 17 grados y otro a 4 grados, puesto que estos cambios bruscos de temperatura también afectan a la salud de las personas. Comenta que en su opinión debería reflexionarse sobre este tema.<br><br>Aitziber San Roman responde que ya se ha hecho esa reflexión y que se ha optado por establecer el criterio de "hielo en la costa" por considerarse el más adecuado y fino. Se compararon los avisos de Euskalmet y AEMET. Que hiele en la costa significa que hay temperaturas muy bajas, por lo que finalmente se ha considerado que este es el criterio que más nos interesa.<br><br>La representante de IRABAZI vuelve a señalar que en su opinión hay situaciones que deberían tenerse en cuenta y que según este criterio quedarían fuera (por ejemplo, de 5 a 0 grados).<br><br>**8.- Ruegos y preguntas**<br><br>Como ya se han ido aclarando todos las dudas que se tenían y al no haber ninguna, finaliza la reunión cuando son las 12h30'. |
| **Donostian, 2018ko abenduaren 14an.** | **En Donostia, a 14 diciembre de 2018** |

| Azaldu gabe geratu diren gaien jarraipena | Seguimiento de temas pendientes |
|---|---|
| **1.- Erantzukizunen jarraipena**<br><br>Kontseiluko kideak, hartzen diren erantzukizunak aktetan jasotzearekin bat datoz, hauen jarraipen egoki bat egiteko. Gainera, aurreko bileraren akta irakurtzen denean, hartutako erantzukizunak errepasatzea eta hauei dagokienez egiten ari garenaren berri ematea proposatzen da. | **1.- Seguimiento de compromisos**<br><br>Los miembros del Consejo coinciden en que se debe recoger en las actas compromisos que se van adoptando para realizar un seguimiento adecuado de los mismos. Se propone además que cuando se lea el acta de la reunión anterior, se repasen los compromisos y se informe sobre lo que se está haciendo en relación a éstos. |
| **2.- Aurreko bileretan sortu diren gaiak eta oraindik ere landu ez direnak:**<br>• **Elkarteentzako lokalak: gaiaren ikuspegi orokorra**<br>• **Bakardadea adineko pertsonengan**<br>• **Egiako Lkaleak proiektuaren gaineko informazioa**<br>• **Zaintzen gaineko proeiktua, Berdintasun ataletik zuzendutakoa.** | **2.-Temas que se han nombrado en reuniones anteriores y que están pendientes de abordar:**<br>• **Locales para asociaciones: visión general de la intervención municipal en este ámbito**<br>• **La soledad en las personas mayores**<br>• **Información sobre el proyecto Lkaleak de Egia**<br>• **Información sobre el proyecto de Cuidados liderado por Berdintasuna** |
| | |